



NPBPEren Euskadiko Jarraipen Batzordea

Batzordearen 1. bilkura (2023.03.29)

AKTA

2023ko martxoaren 14an, Kudeaketa Agintaritzak 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) Jarraipen Batzordean parte hartzeko interesa izan dezaketen erakundeei gonbidapena egin zien, eta, ondoren, erakunde horiei gai-zerrenda eta dagokion dokumentazioa bidali ondoren, martxoaren 29an, Euskadiko Eskualdeko Jarraipen Batzordearen lehen bilkura egin da NPBPEren esparruan, modalitate presentzialean, Eusko Jaurlaritzak Lakuan (Gasteiz) duen egoitzan, eta 9:00etan hasi da bilera, programatutako gai-zerrenda honekin:

1. Jarraipen Batzorde berriaren inaugurazio-esku-hartzea.
2. NPBPE Euskadin: laburpena, egungo egoera, ezarritako mugarriak.
3. Publizitate- eta komunikazio-ekintzak.
4. Jarraipen Batzordearen barne-erregelamendua: zirriborroaren azalpena.
5. LGENF esku-hartzeak hautatzeko irizpideak: zirriborroaren aurkezpena
6. LGENF esku hartzeko fitxen aldaketak: laburpena
7. Galde-eskeak.

Jone Fernandez Landak, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak, Jarraipen Batzordeko lehendakari gisa, ongi-etorria eman die bertaratutakoei eta bertaratzea eskertu die, eta aurkezpen-erronda bat egitea proposatu du. Europako Batzordeko eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko ordezkariak bideokonferentzia bidez parte hartzen dute.

Bilera egiteko behar den quoruma egiaztatuta, saioari hasiera eman zaio. Akta honen eranskinean ematen da bertaratutakoen zerrenda.

1. Jarraipen Batzorde berriaren inaugurazio-hitzaldia.

Jone Fernándezek testuinguruan jarri du Jarraipen Batzorde berriaren sorrera, eta premiaz eratzeko beharra azaldu du; izan ere, batzorde honen eginkizunen artean dago hautaketa-irizpideei eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) esku-hartzeen aldaketei buruzko irizpena ematea. Aipatutako irizpen hori beharrezkoa da laguntza-deialdiak Plan Estrategikoaren esparruan argitaratzeko eta Planaren aldaketak Europako Batzordearen zerbitzuen aurrean izapidetzeko. Horregatik da garrantzitsua lehen bilkura hau deitzea, bermatu ahal izateko 2023ko lehenengo laguntza-deialdiak eta esku hartzeko fitxen aldaketak atzerapenik gabe izapidetu ahal izatea. Adierazi duenez, [martxoaren 27an argitaratu zen EHAAn Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2023ko martxoaren 15eko Ebazpena](#), 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan Euskadiko Eskualde Jarraipenerako Batzordea eratzen duena, baina “Etxaldeko Emakumeak” elkarte sartzeko ebazpena zuzendu beharko dela adierazi du.



Jarraian, hitza eman die Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko (MAPA) eta Europako Batzordeko (COM) ordezkariari. Azken hauek Jarraipen Batzordean parte hartzen dute aholku-emaile gisa eta bideokonferentzia bidez. Jorge Rodríguez (MAPA) eskerrak eman ditu gonbidapenagatik, eta Plan Estrategikoa eta esku-hartzeak diseinatu eta egiteko prozesu osoan Euskal Autonomia Erkidegoarekin izan den lankidetzaren maila ona nabarmendu du, baita Euskaditik beti egin izan diren aurretiko jarrera eta ekarpenak ere. Ana Riosek (COM), halaber, eskerrak eman ditu gonbidapenagatik, eta aitortu du Euskadiko Kudeaketa Agintaritzak lankidetzarako duen jarrera ona, eta espero du hala izaten jarraituko duela aldi berrian ere.

2. NPBPEa Euskadin: laburpena, egungo egoera, ezarritako mugarrak.

Kudeaketa Agintaritzako Inaxio Alguacilek Espainiako Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa eratzeko modua azaldu du, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF), hau da, NPBren lehen zutabea, finantzatutako esku-hartzeekin, eta, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF), hots, NPBren bigarren zutabea, kofinantzatutako esku-hartzeekin, eta Euskadi Plan Estrategiko horretan nola txertatzen den azaldu du.

Ondoren, diapositiba batzuekin batera, zertzelada batzuk eman ditu NBEF funtsaren esku-hartzeen ezaugarri nagusiei eta gutxi gorabeherako aurrekontuei buruz. Ondoren, Jone Fernandezek gauza bera egin du LGENF funtsaren esku-hartzei dagokienez. Lehen zutabearen kasuan, zuzeneko laguntzak eta laguntza sektorialak barne hartzen dituen eta Europar Batasunak % 100ean finantzatzen dituen NBEF funtsaren arabera, nahiz eta autonomia-erkidegoentzako aurrekontu propioak ez egon, Euskadira 2023-2027 aldirako 270 milioi euro inguru irits daitezke (54 milioi euro urte bakoitzeko, gutxi gorabehera). LGENF funtsak eta euskal administrazioek batera finantzatutako bigarren zutabeko esku-hartzeen kasuan, berriz, 218,2 milioi euroko aurrekontua aurrekusi da, eta horietatik 56,7 milioi LGENF funtsakoak izango lirarteke; beraz, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egingo dituzten ekarpenak nabarmen dira, finantzaketa gehigarri moduan, bakoitzak bere eskumeneko esku-hartzeetan.

Azkenik, Inaxio Alguacilek labur-labur azaldu du zertan datzan esku hartzeko logika eta “New Delivery Model” delakoaren ideia Plan Estrategikoaren esparruan, eta nola dauden bideratuta programatutako laguntza-esku-hartze guztiak mugari eta jomuga jakin batzuk lortzera, urtero neurtuko direnak alde aurretik ezarritako adierazle jakin batzuen bidez. Adierazi du Euskal Autonomia Erkidegoan programatutako bigarren zutabeko (LGENF) 18 esku-hartzeekin 27 adierazle elikatuko direla, Espainiako NPBPEk jasotzen dituen 44 emaitza-adierazleetatik, eta taula batean erakutsiko direla 27 adierazle horietako bakoitzarekin lotuta ezarritako mugarrak. Horrekin, mugari eta jomuga horiek betetzeak aldi berrian hartzen duen garrantzia azpimarratzen du, Plan Estrategikoen arrakasta adierazleekiko emaitzen bidez baloratuko baita.

Roberto Ruiz de Gordoak, Lursailen ordezkari gisa, galdetu du ea adierazleei dagokienez aurrekusetako mugarrak ez lortzeak zigorrik edo ondorioz ekar dezakeen. Galdera hori une horretan erantzun gabe geratzen bada ere, geroago, eta Kudeaketa Agintaritzak eta MAPAk kontsultatu ondoren, argitu da uneren batean desbideratze esanguratsuren bat gertatzen bada eskualde mailan ezarritako mugari eta jomugei dagokienez, desbideratze hori justifikatu beharko dela eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak dituen ekintza-plan bat antolatu beharko dela. Ildo horretan, 1046/2022 Errege Dekretuak, Espainiako NPBPEren gobernantza arautzen duenak, 27. artikuluan jasotzen ditu Europako Batzordeak ordainketa-



etendura eragin dezaketen kasuak, eta kasu horietako bat da desbideratzeari buruzko arrazoizko justifikaziorik edo ekintza-planik ez aurkeztea, eskatzen zaionean.

3. Publizitate- eta komunikazio-ekintzak.

Inaxio Alguacilek gogorarazi du Kudeaketa Agintaritzaren betebeharrerako bat dela Plan Estrategikoaren publizitate- eta komunikazio-ekintzak egitea, eta, ildo horretan, Euskadin egiten ari diren ikuspen- eta dibulgazio-ekintzak berrikusi ditu.

2022an egindako ekintzen artean, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek irailaren 28an Arkauten eman zuten prentsaurrekoa, Espainiako NPBPEa onarpenaren harira. Horrez gain, NPBPEari buruzko informazio-bileren erronda bat ere izan zen, zehazki 21 bilera horiek urrian eta azaroan egin ziren Euskadiko eskualde guztietan, sektoreari begira eta, oro har, NPBPEaren laguntzak jaso zitzaizkionei begira.

2023an egiten ari diren ekintzei dagokienez, adierazi du [zenbait informazio-liburuxka](#) egin direla (bertsio laburrak, zabalduak eta eskuzkoak) Euskadin NPBPEa ezartzeari buruz, eta [Euskadin NPBPEri buruzko web-orri](#) bat jarri dela abian, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren atarian eskuragarri dagoena, eta web horretan nabigatzeko aprobetxatu du dituen atalak eta edukiak erakusteko.

4. Jarraipen Batzordearen barne-erregelamendua: zirriborroaren azalpena

Jone Fernandezek Batzordearen barne-araudian jasotako edukiak azaldu ditu (zirriborroa martxoaren 23an igorri zitzaizen Batzordeko kideei), eta alderdi garrantzitsuenak aipatu ditu, osaerari, Batzordeari agindutako eginkizunei eta funtzionamenduari dagokienez.

Batzordearen oinarritzko eginkizunak dira irizpena ematea LGENF esku-hartzeak hautatzeko irizpideei buruz, LGENF esku-hartzeetan egin nahi diren aldaketei buruz, eta errendimenduari buruzko urteko txostenei buruz, hori guztia Euskadiren jarduerari eta eskumen-esparrura mugatuta.

Osaerari dagokionez, administrazioen ordezkariak instituzionalen eta ordezkariak ekonomiko, sozial eta sektorialen artean oreka egon dadin saiatu da, baita Batzordeko kideen artean gizonen eta emakumeen presentzia orekatua egon dadin ere. Bilkuretara Batzordea osatzen ez duten erakundeak gonbidatzeko aukera aurreikusi da, landu beharreko gaien arabera. Ordezkaritza guztiek izango dute botoa emateko eskubidea, Europako Batzordeak eta aholku-emaile gisa parte hartzen duten MAPAk izan ezik. Emakume-elkarteei dagokienez, txandakako sistema bat proposatzen da, eta horren bidez, urtero, lurralde historiko bakoitzeko emakume-elkarte batek bozkatzeko eskubidea izango du.

Funtzionamenduari dagokionez, nabarmendu du Batzordearen bilkurak aurrez aurre zein urrutitik egitea aurrekusten dela, eta bigarren kasuan, idatzizko zein bideokonferentzia bidezko prozeduraren bidez egin ahal izango direla. Irizpena emateko gaiak bozkatzeko diren kasuetan jarduteko moduari buruzko xehetasunak sartu diren arren, adierazi du asmoa dela erabakiak adostasunez eta bozketara jo beharrik gabe hartu ahal izatea.

Ana Riosek, Europako Batzordearen ordezkari gisa, Jardunbide Egokien Kode bat dagoela gogorarazi du, Europako funtsen jarraipen-batzordeei dagokienez, eta Kode horretan oinarrituta, dokumentuak bidaltzeko eta oharrak aurkezteko 10 egun balioduneko epea



ezartzea gomendatzen du. Kontuan hartu da gomendioa, eta Kudeaketa Agintaritzak zirriborroa berrikusiko du, epeak egokitzeko.

Hain zuzen ere, 10 egun balioduneko epea betetzeko, Kudeaketa Agintaritzak iragarri du apirilaren 5era arte aurkeztu ahal izango direla barne-erregelamenduaren zirriborroari buruzko oharra.

5. LGENF esku-hartzeak hautatzeko irizpideak: zirriborroaren aurkezpena

Inaxio Alguacil arduratzen da puntu horren azalpenaz, eta, hasteko, adierazten du hautaketa-irizpideen oinarri juridikoa NPBPEak arautzen dituen 2021/2115 Erregelamenduaren 79. artikuluan dagoela, eta, horren arabera, Kudeaketa Agintaritzaren erantzukizuna da hautaketa-irizpideak ezartzea, Jarraipen Batzordeari kontsulta egin ondoren, eta hautaketa-irizpide horiek bermatu beharko dutela eskatzaileei bidezko tratua ematea, finantza-baliabideak modu egokiagoan erabiltzea eta laguntzak orientatzea, esku-hartzeen helburuaren arabera.

Oinarri horretaz gain, adierazi du Europako Batzordeak jarraibide zehatzagoak eman dituela, puntuazio-sistemak erabiltzeko betebeharrari buruzkoak, gutxieneko puntuazio-atalaseak, irizpide objektiboak direnak eta puntu-berdintasuneko kasuetarako berdinketa hausteko irizpideak ere ezartzen dituztenak.

Bestalde, argitu du ez dela hautaketa-irizpiderik ezarri esku-hartze jakin batzuetarako, zehazki azaleraren edo animalien arabera ordaintzen diren laguntzekin lotutakoetarako (nekazaritza-ingurumeneko laguntzak eta Muga Naturalak dituzten Eremuei dagozkienak lirateke), kasu horietarako ez baita derrigorrezkoa hautaketa-irizpideak erabiltzea.

Jarraian, martxoaren 23an Batzordeko kideei bidali zitzairen hautaketa-irizpideen dokumentuaren zirriborroan egin behar diren doikuntzak adierazi ditu, batez ere Batzordeak lehen aipatutako gaiei buruz dituen jarraibideak jasotzeko (puntuak, gutxieneko atalaseak, berdinketa hausteko irizpideak eta abar), baina baita Sailburuordetzak esku-hartze jakin batzuetan egin nahi dituen zuzenketa batzuk txertatzeko ere.

Puntu honetan, Inaxio Alguacilek Europako Batzordeari galdetu dio, eta zalantzan jarri du proiektu batek laguntza jaso ahal izateko gutxieneko puntuazio-atalaseak ezarri behar izatea. Defendatzen du proiektu batek laguntzen deialdian ezarritako onargarritasun-baldintza edo -betekizun guztiak betetzen baditu, jada ez dela beharrezkoa gutxieneko puntuazio bat gainditzea, hain zuzen ere, baldintza guztiak betetzen dituen, proiektua onargarrizat eta laguntza jasotzeko egokitzat jotzen delako, eta, beraz, proiektu horri laguntzeko aukera izan beharko litzatekeela, baldin eta horretarako aurrekontua badago, eta aurrekontu erabilgarria badago, ez duela zentzurik eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen proiektu bat laguntzarik gabe uzteak. Ana Riosek (COM) azaldu du puntuen gutxieneko atalasea ezartzearen arrazoia laguntzak proiektu onenei bideratzeko printzipioaren arabera dela, kalitate nahikoa dutenei, alegia.

Jesus Maria Eizaguirrek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa, parte hartu du gutxieneko puntu kopuru horren betebeharrarekin ados ez dagoela adierazteko, eta argudiatu du zenbait kasutan, hala nola gazteak sartzeari buruzko esku-hartzean, onargarritasun-baldintza oso zorrotzak ezarri direla, eta, beraz, baldintza horiek betetzeak berez bermatzen duela proiektuen kalitatea, eta, beraz, ez dela beharrezkoa gutxieneko puntuazio-atalaseak ezartzea kasu horietan behintzat. Esku-hartze horren ondoren, Ana Riosek (COM) onartu du agian egokiagoa dela kasuz kasu baloratzea, eta zentzu horretan onar litekeela kasu



batzuetan gutxieneko atalaseak ez ezartzea, betiere onargarritasun-baldintzak proiektuen kalitatea bermatzeko bezain zorrotzak direla justifika badaiteke.

Bestalde, gazteak sektorean sartzeari buruzko esku-hartzeari dagokionez, Inaxio Alguacilek adierazi du Europar Batzordeak ez duela onartzen adina hautaketa-irizpide gisa aplikatzea (7 puntu proposatu dira 38 eta 40 urte bitarteko eskatzaileak dituzten proiektuetarako), argudiatuz ez dela esku-hartzearen helburuari erantzuten dion irizpide objektiboa. Beraz, Inaxio Alguacilek bere objektzioa adierazi du Europar Batzordearen jarrera horri dagokionez, Foru Aldundiek partekatzen dutena (esku-hartze horren eskumena dutenak), eta adierazi du irizpide hori, hain zuzen ere, guztiz bat datorrela esku-hartzearen helburuarekin eta NPBen Helburu Espezifiko batzuekin, besteak beste, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzearen helburuarekin, proiektu horiek ezingo luketelako laguntzarik jaso hurrengo urtean edo bi urte geroago aurkeztuz gero, jada ez litzatekeelako beteko 40 urtetik beherakoa izateko baldintza, eta, hain zuzen ere, horregatik lehenetsi behar direlako. Ana Riosek (COM) arrazoibideak kontuan hartu ditu eta Europar Batzordean duen lantaldearekin gaia baloratzeko konpromisoa hartu du, behin betiko erantzuna emateko.

Gainerakoan, Kudeaketa Agintaritzak adierazi du apirilaren 5era arte hautapen-irizpideei buruzko oharra aurkeztu ahal izango direla, eta gaineratu du 6872 (landa-ingurune oinarriko zerbitzuetan egindako inbertsioak) eta 7119 (toki-garapeneko estrategien araberrako eragiketak - LEADER) esku-hartzeak hautatzeko irizpideak onartzeke geratuko liratekeela. Horiek Jarraipen Batzordeari aurkeztuko zaizkio aurrerago, idatzizko prozeduraren bidez, zehaztuta daudenean.

6. LGENF esku hartzeko fitxen aldaketak: laburpena

Inaxio Alguacilek esan du, aurreko aldi bezala, hasiera batean Plan Estrategikoa urtero aldatzea proposatu ahal izango dela, eta aldaketa bakoitzak hainbat aldaketa edo doikuntza aurreikusi ahal izango dituela hainbat esku-hartzetan. Hala ere, aurreko aldi ez bezala, aldi berri aldaketak estatu-mailan izapidetu beharko dira. Horrela, estatu kide bakoitzak bere Plan Estrategikoa urtero aldatzeko aukera izango du, eta horrek prozedura bat ezartzera behartzen du, MAPAk autonomia-erkidego guztiekin koordinatu ahal izan ditzan bakoitzak urte batetik bestera aurkeztu nahi dituen aldaketak.

Hori esanda, adierazi du MAPAk, eta neurri handi batean autonomia-erkidegoek eskatuta, lehen aldaketa-sorta bat aurkezteko aukera zabaldu duela 2023an, batez ere Plan Estrategikoaren lehen bertsioan kontuan hartu ez ziren edo gaizki sartu ziren aspektuak doitu ahal izateko. Ildo horretan, Euskadik zenbait aldaketa proposatu ditu LGENFen zenbait esku-hartzeren bere eskualdeari dagokion zatian. Aldaketa horiek barrutik landu dira organo kudeatzaileekin, NPBPEn esparruan lehen deialdiak 2023an atera ahal izateko, sartutako doikuntza horiekin. Oraingo honetan ez da eperik ireki erakunde sektorialeko edo ordezkari sozial eta ekonomikoek beren aldaketak proposa zitzaten, premiaz egin beharreko izapidea izan delako eta, gainera, Plan Estrategiko berriaren Jarraipen Batzordea oraindik sortu gabe zegoelako, baina asmoa da 2024tik aurrera proposamen-epe bat irekitzea Batzordeko kideentzat.

Jarraian, aldaketa garrantzitsuenak aipatuko ditugu, martxoaren 23an bidalitako dokumentazioan jasota daudenak.

Foru-aldundien esku-hartzei dagokienez, honako aldaketa-proposamen hauek nabarmentzen dira:



- Finantza-berresleipena: Arabako Foru Aldundiaren LGENFeko 5 miloiren lekualdatzea, 6503 (ekologikoa) eta 6505 (arrazak) gutxitu dira, eta, 6501.4 (erlezaintza) eta 6613 (Muga Naturaleko Eremua edo MNE) handitu dira. 6613 eta 6501.4ri buruzko adierazleak doitzen dira. 6503 eta 6505 konpentsatzen dira top-up bidez (funtsa propioak).
- Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzetarako + Muga Naturaleko Eremuetarako (MNE) esku-hartzeak
 - ✓ Klausula bat sartu da aurrekontu-arrazoiengatik, hainbanaketa edo banaketa proportzionala barne, laguntzaren zenbatekoa zehazterakoan formula mugatzaileak aplikatzeko aukerari buruz.
 - ✓ 300 euroko gutxieneko zenbatekoa ezartzen da laguntzak jaso ahal izateko.
- 6501.4 esku-hartzea (erlezaintza): erlategien arteko gutxieneko distantziari buruzko konpromisoa egokitzen da (1.000 metrotik 500 metrora).
- 6505 esku-hartzea (baliabide genetikoak – arrazak):
 - ✓ bestelako azienda handien unitateetako (A.H.U.) bihurketaren aplikazioaren ondorioz arraza bakoitzerako ezarritako primak doitzen dira eta kalkulu-metodoari buruzko xehetasunak gehitzen dira.
 - ✓ Unitateko Zenbatekoen balioak doitu dira, eta beste bat sortu da hegazti- eta txerri-kategrietarako.
- 6613 esku-hartzea (muga naturalak dituzten eremuak): Zenbateko Unitarioaren balioa doitu egiten da, aurrekontu-gutxiegitasuna dagoenean hainbanaketa edo banaketa proportzionala aplikatzea aurreikusita.
- 6961.1 esku-hartzea (Gazteak sartzeko): eskualdeetako baldintza espezifikoak eta hautaketa-printzipioak eguneratzen dira (emakumeak sartzeko proiektuetarako prima gehigarria kentzen da, eta puntu bidez lehenesten da).

Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzeei dagokienez, hauek dira aldaketa-proposamen esanguratsuenak:

- Landa Garapeneko Lege berriaren ondoriozko maparen arabera landa-eremuaren definizioa sartu da.
- 7132 esku-hartzea: Nekazaritza-produktuak kalitate-erregimenetan sustatzea:
 - ✓ “Arabako Mahastiak” Jatorri Deitura Babestua (JDB) sartu da
 - ✓ Bateriaezintasunaren betekizuna aldatu da alde komunean (autonomia-erkidego guztiek onartu behar dute).
- 7161 eta 7162 esku-hartzeak (Lankidetzak):
 - ✓ Talde Operatiboen eta Lankidetzak Taldeen osakerari buruzko betekizuna egokitzen da.
 - ✓ Berdintasun-faktorea ezabatu da hautaketa-irizpideen artean.

Proposatutako aldaketa guztiak aztertu ondoren, Xabier Iraolak, ENBA nekazarien sindikatuaren izenean, hitza eskatu du nekazaritza eta ingurumeneko laguntzen hainbanatzeak edo banaketa proportzionalak izan ditzakeen ondorio negatiboak buruz galdetzeko, eta galdetu du zer gertatzen den onuradunekin (konpromisoa 5 urtez mantentzeko betebeharra dute), hainbanaketa bat aplikatzeagatik ez badute jasotzen konpromiso baterako ezarritako hasierako primaren arabera teoriarik legokiekeen laguntzaren zenbatekoa. Inaxio Alguacilek erantzun du foru-aldundiek kasu horietarako hartutako erabakia izan dela hainbanaketa aplikatzeagatik laguntzaren zenbatekoa % 15 baino gehiago murrizten denean



lehenengo urtean jasotako zenbatekoarekin alderatuta, onuradunak konpromisoa deuseztatu ahal izango duela, eta horregatik ez zaiola zigorrik ezarriko, kasu horietan Administrazioak baldintzak aldatzen dituela ulertuko litzatekeelako.

Kudeaketa Agintaritzak adierazi du apirilaren 5era arte oharrak aurkeztu ahal izango direla proposatutako aldaketei buruz.

7. Galde-eskeak.

Inolako gairik planteatu ez denez, Jone Fernandezek bilkura itxi du bertaratutako pertsona guztiei eskerrak emanez, eta adierazi du datozen egunetan irizpena emateko aurkeztu diren dokumentuak berriro bidaliko direla, bilkuran zehar aipatutako eguneratzeekin, eta apirilaren 5eko epea ezarri du oharrak aurkezteko edo, beharrezkotzat jotzen badute, horiei buruzko botoa emateko.

Euskadiko Jarraipen Batzordeko Idazkaritza, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Jone Fernandez', written in a cursive style.

Sinatuta. Inaxio Alguacil Barrenetxea

Gasteiz, 2023ko maiatzak 25

PEPAC 2023-2027
Comité de seguimiento de Euskadi
1ª sesión, 29.03.2029
Hoja de asistencia

| INSTITUCIÓN/ENTIDAD | TITULAR | SUPLENTE |
|---|--|-----------------------------|
| Presidencia | | |
| Autoridad de Gestión-Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas | Jone Fernandez | |
| Secretaría | | |
| Autoridad de Gestión-Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas | Inaxio Alguacil | |
| Representantes institucionales | | |
| Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco | | Jose David García |
| Dirección de Calidad e Industrias alimentarias del Gobierno Vasco | Raul Perez Iratxeta | |
| Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático | | Jose Luis Atutxa |
| Diputación Foral de Araba | Asun Quintana | |
| Diputación Foral de Bizkaia | | Ramon Amenabar |
| Diputación Foral de Gipuzkoa | | Jesus Maria Eizagirre |
| Unidad Igualdad Dpto. de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente | | |
| EMAKUNDE | | María Sierra |
| Fundación HAZI | Pilar Santamaría | Juanjo Abasolo |
| Organismo Intermedio del País Vasco para el Programa FEMPA | | Koldo Arrese |
| Organismo Intermedio del País Vasco para el Programa FEDER | Juan Alberdi | |
| Organismo Intermedio del País Vasco para el Programa FSE | Juan Alberdi | |
| Interlocutores Económicos y sociales | | |
| EUDEL | Nekane Arrizabalaga | |
| BASKEGUR | | |
| CLUSTER Alimentación de Euskadi | | Virginia Matesanz |
| KONFEKOOP - Federación Coop. agrarias de Euskadi | | |
| Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi | | Xabier Lejarzegi |
| LURSAIL | Arantazu Martiarena | Roberto Ruiz de Gordoa |
| MENEKO (Federación de Asociaciones de Desarrollo Rural de Euskadi) | | Aitziber Ansotegi |
| Grupos de Acción Local seleccionados en el marco de LEADER | | |
| NEIKER | | Iker Bilbao |
| UAGA | Sugoi Auzmendi | Asier Fernandez de Jauregui |
| EHNE | Garikoitz Nazabal | |
| ENBA | Xabier Iraola | |
| Representación de la sociedad civil | | |
| Asociaciones de mujeres (Gipuzkoa) | | |
| | HITZEZ | |
| Asociaciones de mujeres (Bizkaia) | | |
| | LANDA XXI | Leire Ayala |
| | GAITTUN | |
| | Etxaldeko Emakumeak | Alazne Intxauspe |
| Asociaciones de mujeres (Araba) | | |
| | Asociación Red de Mujeres del medio rural de Álava | Elvira Resano |
| | Gure Soroa | Estitxu Aranzamendi |
| FORO RURAL MUNDIAL | | Laura Lorenzo |
| Miembros a título consultivo | | |
| COMISIÓN EUROPEA | Ana Ríos Olmedo | |
| MAPA - SG Programación y Coordinación | Jorge Rodriguez | |
| Otros invitados | | |
| Autoridad de gestión | Jon Gorostiza | María Colino |
| HAZI Fundazioa | Eli Gorospe | |